



Isabel Uria

◆ IRAKASLE ERRETIRATUA

Abortatzeagatik epaitutako hamaika basauriar haiek

BORROKAK JARRAITU egin behar du, Sexualitatea ez da amatasuna, Anti-sorgailuak ez abortatzeko, Abortu librea ez hiltzeko... Lelo horiek ditut gogoan, beste askoren artean: *Amnistia emakumeentzat* eta *Abortua legalizatu*. Feministok behin eta berriz oihukatzen genituen Basauriko hamaika emakumeen epaiketen harira egindako borroketan, 1982an.

Bilerak eta manifestazioak ditut gogoan, itxialdiak eta mitinak, eta PSOEtik ezkereragorako emakume guztiak batuta, inoiz berriz ikusi ez dudana moduan: PCko Kati Gutiérrez, EMK-ko Rosa Olivares eta Karmele Ikazuriaga, Maria Jose Urruzola, Assumpta Serna, Cristina Almeida, Antonia Fernández... eta Idoia, Ana, Raquel, Rosa, Esti, Isabel eta beste asko –barkatu oroimena herrenka baitabilkit–. Feministok gaizki egin dugu, ez baitugu gure borroken historia behar bezainbeste zaindu eta gorde.

Gogoan dudana beste gauza bat da, garai hartan, edo beldur gutxiago genion mikrofonoari, edo hain boteretsu, arrazoiz eta argumentuz beteta sentitzen ginen, ezen aukera ematen zigun orduko mundu guztiari kontatzen baikenion abortua legalizatzea nahi genuela, nazkatuta geundela XIX. mendeko lege batez, erreformak emakumeak traizionatu zituela... Denok nahi genuen hitz egin. Gaur egun, kontu handiz adosten dugu nori dagokion hitz egitea eta boluntarioak ez dira sekula pilatzen.

Gogoratzen dut borroka bereko partaide sentitzen ginela, berriz sentitu ez dugun mailako eskuzabaltasunez aritu ginela. Guztiok, zuzenean eragin ala ez,

Nik ere abortatu dut kartela generaman eta manifestazioetan oihu egiten genuen. Diru-bilketak egiten ziren Frantziara eta Londresera joateko.

Gogoan ditut jaun suminduen irainak; betikoak ziren: “Putak!”, “segi harrikoa egitera!”, “mari-mutilak!”. Orain grazia egiten dit feministak ondo ikusiak ez garelako, gazte batzuk minduta sentitzea. Emakumeak gutxietsi, gaizki tratatu eta erailtzen dituen gizartean, giza eskubide osoak ez dituenean lortu, eta ama, emazte eta zaintzaile gisa “emandako lanak” betetzen ez dituztenean ohartaraziak direnean, harrigarria litzateke feministak jendar-tearen etsai natural gisa gorrotatuak ez izatea.

PSOEtik ezkereragorako emakume guztiak batuta geunden, inoiz berriz ikusi ez dudana moduan: PCko Kati Gutiérrez, EMK-ko Rosa Olivares, Assumpta Serna, Cristina Almeida...

Gogoan dut, Basaurikoa baino pixka bat lehenengo lehenengo aldiz ama izan nintzela. Orduan ez nuen ulertu, eta orain ere ez dut ulertzen nola ama izan nintzenean pilatu zitzaizkidan sentimenduak eta emozioak, lana-eta utzi beharrak, mina eta poza, inposatu nahi zaizkion inondik inora halakorik nahi ez duenari. ■



• IRITZIAREN LEIHOA

BERTSO BERRIAK

Errekalde auzoko Etxarri etxea



Oihana Bartra Arenas



Doinua:

Hamalau heriotzena.

Kukutza III hartako horma ta enparau, behera bota zituzten garabiek ri-rau. Gaztetxe berri hontan lehengoak badirau “Etxarri” du izena ta ez Kukutza IV luzapen hutsa baino gehiago baita hau.

20 urtez egon da hutsik ta itxita bi solairu dituen lantegi polita. Baina barrutik zikin, zahar ta hautsita. Orain auzolanean gutxika-gutxika bilakatu daiteke ametsen fabrika.

Kukutza eraistearen mendeku-zigorra auzoarentzat izan zen oso gogorra. Indarra ta gogoia dagoenez sobra, Etxarri izango da urrezko altxorra auzoko proiektuen bihotz ta motorra. ■